

## informazioa eta izen ematea

### Prezioak

Ikasle eta langabetuak: 35 €

Beste guztiak: 70 €

Maiatzaren 4tik 31ra egindako matrikulek %10eko deskontua izango dute

### Matrikula epeak

Maiatzaren 4tik ekainaren 24ra

### Balio akademikoa

20 ordu

### Matrikula

Bilbao Arte eta Kultura uda ikastaroen idazkaritzan, UPV/EHU Larrako Etxea, Lehendakari Agirre 83, 48015 Bilbao

Tel.: 94 601 71 43

Faxa: 94 601 71 17

bak@ehu.es

www.ehu.es/bak

2009ko ekainak 25 eta 26



zubiria etxea · upv/ehu  
lehendakari agirre, 83 (sarriko) bilbo

antolatzaileak:

[www.economiasolidaria.org/reaseuskadi](http://www.economiasolidaria.org/reaseuskadi)

[www.lan-harremanak.ehu.es](http://www.lan-harremanak.ehu.es)

[www.hegoa.ehu.es](http://www.hegoa.ehu.es)

Azken hilabeteotan, historia garaikidean inoiz ez bezala, agerian geratzen ari da sistema ekonomiko neoliberalak politikaren eta hiritarren kontrolatik at dagoela. Finantza krisiaren mehatxuak eta krisi horrek hiritarren (bereziki sektore babesgabeenetan) daukan eraginak agerian utzi du merkatu aske esaten zaiona ez datorrela bat jendearekin premiekin eta gizartearen garapenarekin. Sistema horrek ekonomia produktiboa alde batera utzi eta ekonomia espekulatiboa gailendu du, eta garapen ekonomikoak ez du aintzat hartzen giza garapen eramangarria.

Baina ez dezagun ahaztu krisi ekonomikoaren ondorioak agerian zeudela jada beste eremu batzuetan, hala nola energiaren eta elikagaien sektorean, eta munduan milioika pertsona pobre daudela sorgin-gurpil batean sartuta. Krisi bete-betean gobernu asko AEBetan eta Europan krisian dauden finantza erakundeak salbatzeko ahalegina egiten ari dira, milioi askorekin. Beste aldean, Nazio Batuetako hainbat agentziak adierazi dute ekonomia, gizarte eta genero desberdintasunak handitzen ari direla eta ingurumena kaltetzen, mundu osoan.

Egoera honen aurrean, ekonomia beste era batera antolatu al daiteke? Mundu zuzenago, berdintasunezkoago eta iraunkorrago bat bideragarria izango da, soilik, –beste aldaketa sozial eta kultural batzuen artean– jarduera ekonomikoek beren orientazioa erabat aldatzen ez badute. Ekonomia beraren alderdi ezberdinetan (ekoizpena, finantzaketa, merkataritza eta kontsumoa) bitarteko gisa –eta ez helburu gisa– aldarrikatzen duten kultura berri bat eta sistema berri bat garapen pertsonal eta komunitarioaren zerbitzura, gizakiaren, gizartearen eta ingurumen garapen iraunkor eta parte-hartzailearen ikuspegitik.

Mintegiaren helburua da egungo krisi ekonomikoa ulertzearen inguruko hausnarketa eta eztabaida sustatzea eta ikuspegi eta jardunbide alternatiboak aurkeztea. Horrela, krisia, eta bereziki erantzun zehatzak ikerketa korrante ezberdinetatik eta jarduera ekonomiko alternatibotik (esaterako: ekonomia ekologikoa, ekonomia feminista eta ekonomia solidarioa) abiatuz.

Azkenik, eta krisi honen ezaugarri nagusietako bat finantzetan duen eragina denez, egungo banku eta finantza sistemekiko alternatiboak diren eraikuntza proposamen batzuk aurkeztuko dira. Banku etiko europarraren proiektua bezalako ekimenak edo finantzaketa etiko eta solidarioaren tresnak. Azken finean, gure gizartearen jada martxan dauden esperientziak, gizarte ehuna eraikitzearen ikuspegitik eta hiritarrentzako aukera alternatibo eta bideragarria eskaintzen dutenak.

Mintegi honen antolaketarekin, ekonomia solidarioaren eta giza-garapen iraunkorraren ikuspegiko egungo gaien gaineko hausnarketa eta eztabaidarako guneak eskaintzeko helburuarekin, REAS Euskadi, UPV/EHUko Lan Harremanen Unibertsitate-Eskola eta Hegoa Institutuaren arteko lankidetzak hitzarmenak hiru urte bete ditu.

## Ekainak 25, osteguna

09:00 Dokumentazio banaketa

09:15 **Krisi ekonomikoaren ikuspegi orokorra**

**Juan Torres** · Sevillako Unibertsitatea

10:45 **Erantzunak eta alternatibak ekonomia ekologikotik**

**Esther Velázquez** · Pablo de Olavide Unibertsitatea

12:15 **Erantzunak eta alternatibak ekonomia feministatik**

**Amalia Pérez Orozco** · Nazio Batuetako Nazioarteko Ikerketa eta Gaitasun Institutua Emakumearen Sustapenerako (UN-INSTRAW)

## Ekainak 26, ostirala

09:15 **Erantzunak eta alternatibak ekonomia solidariotik**

**Pablo Guerra** · Errepublikako Unibertsitatea, Uruguay

11:30 **Erantzunak eta alternatibak finantza etikoetatik:**

**Coop 57, Oikocredit eta Fiare**

**Ramón Pascual** · Coop57, Finantza Zerbitzu Etiko eta Solidarioak

**Jorge Berezo** · Oikocredit-Ecumenical Development Cooperative Society, U.A. laguntzeko euskal elkarteak.

**Peru Sasía** · Fiare Banku Etiko Proiektua

[www.juantorreslopez.com](http://www.juantorreslopez.com)

[www.upo.es/econ/velazquez](http://www.upo.es/econ/velazquez)

[www.un-instraw.org](http://www.un-instraw.org)

<http://pabloguerra.tripod.com>

[www.coop57.coop](http://www.coop57.coop)

[www.oikocredit.org](http://www.oikocredit.org)

[www.proyectofiare.com](http://www.proyectofiare.com)